

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko abenduaren 23an arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2024-11-19KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2024-11-19ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Nafarroa Oinez 2025

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko azaroaren 26an, 58/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Nafarroa Oinez 2025i Beteluko azoko ibiltarian postu bat jartzeko baimena ematea 2024ko abenduaren 1erako.

2. Garikoitz Huizi

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko abenduaren 4ean, 59/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Garikoitz Huiziri Beteluko frontoia erabiltzeko baimena ematea abenduaren 29an egitekoa zen pala txapelketarako.

3. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko abenduaren 10ean, 60/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko azaroaren 19an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

4. Enrique Arregui Guruceaga

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko abenduaren 18an, 61/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Enrique Arregui Guruceagari Betelun 2 behi-bururentzako abeltzaintza-ustiapen estentsiboko jarduera kaltegabea jartzeko baimena ematea.

3. 2025. URTEKO AURREKONTUAREN ETA EXEKUZIO OINARRIEN HASIERAKO ONESPENA

Alkateak 2025. urterako Beteluko Udalaren aurrekontuen eta hauen exekuzio oinarrien irakurketa egin du.

Udalbatzari ondoko akordioa onartzea proposatu zaio:

1. Hasiera batez onestea 2025. ekitaldiko aurrekontu orokor eta bakarra.
2. Hasiera batez onestea Beteluko 2025. urteko aurrekontua betearazteko oinarriak
3. Bai aurrekontu orokorra bai hura betearazteko oinarriak jendaurrean jarriko dira hamabost egun baliodunean, iragarkia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita, herritarrek eta interesatuek espedientea aztertu eta egoki juzkatzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik egin ezean, aurrekontu orokor hori behin betikoz onetsitzat joko da, jendaurreko epea bukatutakoan.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta batzarrak aho batez onartu egin du.

4. 2025. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 202. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235.ean ezarritakoari jarraituz, Beteluko Udaleko plantilla organikoa hasiera batez onartzeko proposatu zaio

Hasiera batean onetsitako plantilla organikoa jendaurrean egonen da udal idazkaritzan, hamabortz egun balioduneko epean, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaleko iragarki ohean iragarkia paratu ondotik, herritarrek edo interesatuek espedienteaz aztertu eta bidezko juzgatzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, plantilla organikoa behin betiko onetsitatzeko da, aipatutako jendaurreko epea iragandakoan.

LANPOSTUEN ZERRENDA

Funtzionarioa

Lanpostua: 1 zenbakia. Araizko eta Beteluko Udalen Batasuneko idazkaria. Buru den udalerrria: Araitx. A maila. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Lanpostuko osagarria: %35 + 3,72. Berariazko baldintza: euskaraz jakitea nahitaezkoa. Egoera administratiboa: hutsik.

Lan-kontratudunak

Lanpostua: 2 zenbakia. Administrari Laguntzailea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Lanaldi partziala (10 ordu astean). Mailako osagarria: %12. Berariazko betebeharra: euskaraz jakitea nahitaezkoa. Egungo egoera: Beterik.

Langileen izenen zerrenda

Aldi baterako administrazio-kontratudunak. Joanes Aleman Ollo. Araizko eta Beteluko Udalen Batasuneko idazkaria. Lanaldiaren erdia Araizko Udalean eta beste erdia Betelukoan. A maila. Lanpostuko osagarria: %35 + 3,72. Antzintasuna 2013ko irailaren 2tik.

Lan kontrataduneko langile finkoa. Mirentxu Eskamendi Iriarte. Administrari Laguntzailea. Maila: D. Hornikuntza modua: Merezimendu lehiaketa bidez Lanaldi partziala (10 ordu astean). Mailako osagarria: %12. Berariazko betebeharra: euskaraz jakitea nahitaezkoa. Antzintasuna: 2009ko irailaren 3tik.

Euskararen erabilera arautzen duen abenduaren 15eko 18/86 Foru Legearen 15.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta kontuan hartuz Beteluko egoera linguistikoa, euskaraz jakitea nahitaezko baldintza izanen da 1. eta 2. lanpostuetarako (idazkariaren eta administrari laguntzailea), eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskara maila altuena eskatuko da, EGA, C-1, edo ofizialki haren baliokide den titulazioa.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta batzarrak aho batez onartu egin du.

5. HIZKERA EZ-SEXISTAREN ERABILERA ETA KOMUNIKAZIO INKLUSIBOAREN SUSTAPENA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA.

Udalbatzari honako hau proposatzen zaio:

Hizkera ez-sexistaren erabilera eta komunikazio inklusiboaren sustapena arautzen duen udal ordenantzaren hasierako onarpena

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoaren arabera, espedienteak jendakurrean izanen da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, auzotarrek eta legezko interesdunek espedienteak aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharak egin ditzaten.

Arauzko epean erreklamaziorik egiten ez bada, ordenantza behin betiko onartutzat joko da.

Alkateak erabakia bozkatera ekarri du, eta udalbatzak aho batez onartu du.

6. BETELUKO 1. POLIGONOKO 238, 239, 240, 241, 237, 234 LURSAILAK INBENTARIOAN SARTZEA

Beteluko Udalak Beteluko 1. Poligonoko 238, 239, 240, 241, 237 eta 234. Lursailak inguruko mugakideei besterengantzeko prozedura egin du lursail horiek soberan zirela deklaratu ondoren.

Lursail horiek udal artxibategian den ondasunen inbentarioan ez dira ageri orain arte.

Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erreglamendua onartzen duen urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 124. Artikulua ezartzen du, higiezin baten salmenta egin baino lehen, bere egoera fisikoa eta juridikoa argitu behar dela eta hala behar balitz, jabetza erregistroan inskribatu.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 112 eta 113 artikulua, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erreglamendua onartzen duen urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 73. eta hurrengo artikulua eta Hipoteka legearen idazketa ofizial berria onartzen duen 1946ko otsailaren 8ko Dekretuaren 206. artikulua kontuan harturik

Hau denagatik Udalbatzak honakoa onartu du:

Lehenengoa: Beteluko 1. Poligonoko 238, 239, 240, 241, 237 eta 234 lursailak inbentariatzea honako ezaugarriekin:

1-238 lursaila: Hiri lurzoruan kokatutako 196,86 metro karratuko azalera du. Iparraldetik 1. Poligonoko 30. Lursailarekin muga egiten du; ekialdetik 1. Poligonoko 239. Lursailarekin; hegoaldetik 1. Poligonoko 57. Lursailarekin

eta mendebaldetik 1. Poligonoko 56. lursailarekin. Lursail soberakin izendatua dago eta ez du gaur egun inongo erabilerarik.

Ondasuna antzina-antzinatik da Beteluko Udalaren jabetzakoa eta ez da ageri jabetza erregistroari edo salmenta eskriturei buruzko dokumentaziorik

Udal inbentarioan dagoen hurrenkerari jarraituz, 1E 12 zenbakia ezarriko zaio.

1-239 lursaila: Hiri lurzoruan kokatutako 171,67 metro karratuko azalera du. Iparraldetik 1. Poligonoko 30. Lursailarekin muga egiten du; ekialdetik 1. Poligonoko 60. Lursailarekin; hegoaldetik 1. Poligonoko 240. Lursailarekin eta mendebaldetik 1. Poligonoko 238. lursailarekin. Lursail soberakin izendatua dago eta ez du gaur egun inongo erabilerarik.

Ondasuna antzina-antzinatik da Beteluko Udalaren jabetzakoa eta ez da ageri jabetza erregistroari edo salmenta eskriturei buruzko dokumentaziorik.

Udal inbentarioan dagoen hurrenkerari jarraituz, 1E 13 zenbakia ezarriko zaio.

1-240 lursaila: Hiri lurzoruan kokatutako 74,41 metro karratuko azalera du. Iparraldetik 1. Poligonoko 239. Lursailarekin muga egiten du; ekialdetik 1. Poligonoko 60. Lursailarekin; hegoaldetik Etxaburua kalearekin eta mendebaldetik 1. Poligonoko 57. lursailarekin. Lursail soberakin izendatua dago eta ez du gaur egun inongo erabilerarik.

Ondasuna antzina-antzinatik da Beteluko Udalaren jabetzakoa eta ez da ageri jabetza erregistroari edo salmenta eskriturei buruzko dokumentaziorik.

Udal inbentarioan dagoen hurrenkerari jarraituz, 1E 14 zenbakia ezarriko zaio.

1-241 lursaila: Hiri lurzoruan kokatutako 35,03 metro karratuko azalera du. Iparraldetik 1. Poligonoko 240. Lursailarekin muga egiten du; ekialdetik eta hegoaldetik Etxaburua kalearekin eta mendebaldetik 1. Poligonoko 57. Eta 58. lursailarekin. Lursail soberakin izendatua dago eta ez du gaur egun inongo erabilerarik.

Ondasuna antzina-antzinatik da Beteluko Udalaren jabetzakoa eta ez da ageri jabetza erregistroari edo salmenta eskriturei buruzko dokumentaziorik.

Udal inbentarioan dagoen hurrenkerari jarraituz, 1E 15 zenbakia ezarriko zaio.

1-237 lursaila: Hiri lurzoruan kokatutako 795,72 metro karratuko azalera du. Barneko puntuetan 1. Poligonoko 9. Lursailarekin muga egiten du, iparraldetik, mendebaldetik eta hegoaldetik San Pedro kalearekin eta ekialdetik Elostaldeko bidearekin eta 1. Poligonoko 70. lursailarekin. Lursail soberakin izendatua dago eta ez du gaur egun inongo erabilerarik.

Ondasuna antzina-antzinatik da Beteluko Udalaren jabetzakoa eta ez da ageri jabetza erregistroari edo salmenta eskriturei buruzko dokumentaziorik.

Udal inbentarioan dagoen hurrenkerari jarraituz, 1E 16 zenbakia ezarriko zaio.

1-234 lursaila: Lurzoru ez urbanizgarrian kokatutako 500,25 metro karratuko azalera du. Iparraldetik 1. Poligonoko 231 eta 153. Lursailekin egiten du muga, mendebaldetik bidearekin, ekialdetik 1. Poligonoko 153. lursailarekin eta hegoaldetik 1. Poligonoko 153, 154 eta 155. lursailekin. Lursail soberakin izendatua dago eta ez du gaur egun inongo erabilerarik.

Ondasuna antzina-antzinatik da Beteluko Udalaren jabetzakoa eta ez da ageri jabetza erregistroari edo salmenta eskriturei buruzko dokumentaziorik.

Udal inbentarioan dagoen hurrenkerari jarraituz, 1E 17 zenbakia ezarriko zaio.

Bigarrena: Aipaturiko ondasun higiezinaren inmatrikulazioa egiteko eskatzea Iruñeko 8 zenbakiduneko Jabetza Erregistroari, hipoteka-legearen idazketa ofizial berria onartzen duen 1946ko otsailaren 8ko Dekretuaren (13/2015 Legeak emandako idazketan) 206. artikulua ezarritako ondorioetarako.

Hirugarrena: Lorenzo Zubillaga Goicoechea Beteluko Udaleko Alkatea ahalduzkoa akordio honetatik erator daitezkeen dokumentuak sinatzeko.

7. PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOAN SARTZEKO ONARPENA

Beteluko Udalak Plazaola Partzuergo Turistikoarekin batera bertan sartzeko aukera aztertu du.

Ikusita Betelu dela Mendialdeko herrietatik kanpoan dagoen bakarra eta diru laguntza batzuk lortzeko lagungarria izan daitekeela Partzuergoan parte hartzea udalbatzak honakoa erabaki du:

Lehenengoa: Beteluko Udala Plazaola Partzuergo Turistikoan sartzeko eskaera egitea.

Bigarrena: Akordio honen berri Plazaola Partzuergo Turistikoari jakinaraztea.

Alkateak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

8. ESKOLAKO JANTOKIAREN KUDEAKETA

Nafarroako Foru Komunitateko unibertitateaz bestelako ikastetxe publikoetako eskola jantokiak arautzen dituen maiatzaren 29ko 58/2024 Foru Dekretuaren 9.5

artikuluaren arabera, Hezkuntza Departamentuak hitzarmenak egin ditzakete eskola jantokiaren kudeaketaz arduratu nahi duten toki entitateekin.

Araxes eskualdeko ikastetxe publikoko zuzendaritzak eta Gurasoen Elkartek eskolako jantokia kudeadetzeko nahia azaldu dute

Hau dena ikusita, Beteluko udalbatzak ERABAKI DU:

Lehenengoa: Beteluko Udalak Araxes eskualdeko ikastetxe publikoko jantokia kudeatzeko ardura hartzeko nahia agertzea.

Bigarrena: Akordio hau Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea.

Hirugarrena: Beteluko Udaleko alkateari ahalmena ematea akordio honetatik erator daitezkeen dokumentuak sinatzeko.

Akordia, Batzarrera etorritako guztiek, aho batez, onartu dute.

9. DANA UHOLDEA DELA ETA DIRULAGUNTZA EMATEA

1. Hezkuntzako Departamentuari eskolako jantokiari buruz bidalitako idatzia

DANA fenomeno meteorologikoak Valentziako hainbat udalerri eta pertsonari eragindako kalteak ikusita, udalbatzak aho batez zera onartu du:

Lehenengoa: 500 euroko ekarpena egitea.

Bigarrena: Ekarpén hori NUKFk horretarako irekitako kontu korrontean (ES73 2100 5340 5021 0008 8370) egitea.

Akordia, Batzarrera etorritako guztiek, aho batez, onartu dute.

10. JAVIER ARREGUIRI FIDANTZA ITZULTZEA

Beteluko Udaleko alkatetzak 2024ko azaroaren 12an egin zuen bilkuran erabaki zen Jose Javier Arregui Guruceagari baimena ematea pistak eta auzo-bideak erabil ditzan ondoko parajea baso-aprobetxamendua egiteko:

- Lulota parajea. 2. poligonoa. 649. partzela. 90 metro kubiko zurezko bolumenarekin. Titularra: Enrique Arregui Urbietak

Arregui jaunak 360,00 euroko fidantza jarri zuen (90 m³ x 4 €/ m³), lanak behar bezala egingo zirela bermatzeko.

Lanak amaituta, 2024ko abenduaren 16an fidantza hori itzultzeko eskatu du Jose Javier Arregui Guruceagak.

Lanak behar bezala bete dira eta basoko bideak eta pistak egoera onean geratu dira

Erabaki da:

Jose Javier Arregui Guruceaga jaunak jarritako 360,00 euroko fidantza ezereztea eta itzultzea.

11. JESUS GONZALEZI FIDANTZA ITZULTZEA

Beteluko Udaleko alkatetzak 2019ko abuztuaren 29an egin zuen bilkuran erabaki zen Jesus Gonzalez Gonzalez baimena ematea pistak eta auzo-bideak erabil zitzan baso-aprobetxamendua egiteko:

Gonzalez jaunak 300,00 euroko fidantza jarri zuen (100 m³ x 3 €/ m³), lanak behar bezala egingo zirela bermatzeko.

Lanak amaituta, 2024ko abenduaren 16an fidantza hori itzultzeko eskatu du Jesus Gonzalez Gonzalezek.

Lanak behar bezala bete dira eta basoko bideak eta pistak egoera onean geratu dira
Erabaki da:

Jesus Gonzalez Gonzalez jaunak jarritako 300,00 euroko fidantza ezereztea eta itzultzea.

12. UDALBATZAREN EZAGUTZARAKO

1. Ingurumen arloko zuzendari nagusiaren 2024ko abenduaren 9ko 229 /2024 ebazpena

Udalbatzari Ingurumen arloko zuzendari nagusiaren 2024ko abenduaren 9ko 229 /2024 ebazpenaren berri eman zaio. Bertan 12.100,39 euroko dirulaguntza onartu zaio Beteluko Udalarri Beteluko herri lurretan sasi-kentze lanak egiteko.

13. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1025 urriko mugikortasuna	132,80 €
Excavaciones Bartolo	F. 10 puntu garbiko lanak	2.217,33 €
Excavaciones Bartolo	F. 9 uraren inguruko matxurak	6.993,80 €
Ofico	F. 244515	91,57 €
Correos	F. Uraren kontagailuen irakurketa	20 €
Urrats	F. Frontoiko giltzen kopiak	18 €
Tornillos express	F. Tirafondoak (abenduak 1 aizkolariak)	41,21 €
Brico depot	F. 20586	45,21 €
Geserlocal	F. A0028/001450	856,67 €
Iberdrola	F. Urberoa azaroa	6,11 €

Iberdrola	F. C/ Mayor 7-2º	8,34 €
Wikai	F. Azaroko gastua	112,10 €
Campos Walsh Venus	F. Azaroko garbiketak	2833,41 €
Carrillo Ruiz Angelines	F. Azaroko uraren kontrola	90 €
Vizcaino petroleros	F. eskolarako gasoila	3.154,47 €
Mercacesped	F. belarra	368 €
Droitek Electrodomésticos	F. indianoetxerako telebista	1.699 €
Animsa	F. SCA 518	1.084,04 €
Iberdrola	F. argiztapen publikoa	1.072,97 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	512,53 €
Jose Manuel Cruz Liciaga	F. C24.4	1.210,00 €
Jose Manuel Cruz Liciaga	F. C24.5	1.107,15 €
Jose Manuel Cruz Licaga	F. C24.6	4.071,65 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 68-2024	121 €
Zhongou-Market SL	f. Eguberriko pinuak,...	131,85 €
Dimarpe	F. 243070	16,65 €
IDM Medical Equipment	F. 2165 desfibriladorearen mantenua	128,84 €
Goierer	Udaletxeko azaroko argia	1.129,37 €
Goierer	Eskolako azaroko argia	1.145,56 €
Animsa	F. A 475	165,96 €
Suministros Moncayo	F.S242839	274,43 €
Codisna	F. 24.649	199,65 €
Urzubi	F. 1327	96,16 €
Diegaby Hostal SL	F 40	137,50 €
Diegaby Hostal SL	F. 39	125,50 €
Zhongguo-Market SL	f. eguberriko argiak	27,20 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. azaroko mugikortasuna	126,01 €
Comercial Fervis	F. 3650	111,15 €
i-Si Accesos y Presencia SL	f. Barra antipánico	956,99 €
Animsa	F. domeinuak	37,48 €
Ofico	F. abenduko aholkularitza	99,46 €
Bauhaus	F. hillerriko euriarentzat bidona	63,85 €
Contadores de agua Zaragoza SA	F. 242500 contador agua	1.197,90€
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Seikide	Azaroko aholkularitza	152,46 €
Maite Garcia Satrustegui	F. Azaroko menuak	795,60 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Azaroko janariak	74,70 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Azaroko garbiketa produktuak	22,60 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Urriko janariak	69,85 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. Urriko garbiketa produktuak	23,35 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. 23/2024	11,20 €

Comercial Fervis	F. 3648	99,34 €
	DENETARA:	35.287,97 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

14. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak eta erdiak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.